

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	INGURUNE NATURALEAN ZALDIZ KIROL-JARDUERA EGITEA	Iraupena	80
		Baldintzatua	
Kodea	UF0836		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zaldiz egiteko ibilbideetan pertsonak gidatzea.	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ingurune naturaleko lekualdaketak, egonaldiak eta segurtasuna zaldi-jarduerak egitean (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Zaldi-jardueretarako olgeta-jarduera osagarriak egitea, eta autonomia pertsonala mugatua duten pertsonetara egokitzea (zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB1, LB2, LB3, LB5 (ingurune naturalean jarduera egiteari dagokionez), LB6, LB8 eta LB9 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Ekipoak, zaldiak eta baliabideak hautatzea, haien egoera begiratzea eta askotariko erabiltzaile-mota, jardueraren ezaugarri eta helburuetara egokitzea.
- EI1.1 Zerrenda bat egitea, eta zerbitzua egiteko banakako nahiz taldeko kirol- eta segurtasun-materiala identifikatzea, jardueraren eta talde-motaren arabera.
- EI1.2 Ekipoak eta zaldiak aztertze eta erabiltzaile-mota desberdinetara egokitze prozesua deskribatzea.
- EI1.3 Jardueraren kasu praktikoa batean, banakoaren eta taldearen ekipoa, zaldia eta baliabideak hautatzea, irizpide hauei jarraikiz:
- Ibilbidearen zailtasuna.
 - Erabiltzaileen abilezia-maila.
 - Erabiltzaileen ezagutza teknikoaren maila.
 - Ibilbidearen iraupena.
 - Aurreikusitako klima-kondizioak.
 - Erabiltzaileen morfologia.
 - Erabiltzaileen pisua.
 - Segurtasun-tarteak.
 - Materialaren errentagarritasun ekonomikoa: iraunkortasuna eta konponketa- eta mantentze-lanak egiteko erraztasuna.
 - Aldez aurretik identifikatutako materialaren arabera eraman behar diren erremintak eta konponketa-materialak.
- EI1.4 Jarduerari ekin baino lehenagoko materiala banatzeko prozesua eta kontrol-mota deskribatzea.
- A2: Bezeroen iaiotasun teknika zahaztea, eta zaldiz egiteko ibilbideetan aurrera egiteko oinarrizko teknikak erabiltzen duten gaitasun-maila identifikatzea.
- EI2.1 Erabiltzaileen iaiotasun teknika lortzeko etapak eta/edo mailak deskribatzea.
- EI2.2 Zaldiz kirola egitean gertatzen diren ohiko akatsak deskribatzea.
- EI2.3 Ezaugarriak behar bezala zahaztuta dauzkan egoera simulatu batean, balizko erabiltzaileak egindako akatsak identifikatzea.
- EI2.4 Zaldi-erabiltzaileen teknika- eta kirol-gaitasunei buruzko datuak lortzeko teknikak deskribatzea.
- EI2.5 Zaldiz ibilbide jakin bat egiteko parte-hartzaileen talde bat barnean hartzen duen kasu praktikoa bat abiapuntu izanik:
- Erakustaldia egiteko eremua aukeratzea, eta aurreikusitako probak egin daitezkeela justifikatzea.
 - Behar diren segurtasun-neurriak hartzea.
 - Lekualdatzeko askotariko moduak nola gauzatuko diren antolatzea.
 - Erabiltzaileak lekualdatzeko hainbat modutan duen iaiotasun-maila.
- EI2.6 Erabiltzaileekin egiteko ibilbidearen kasu batean, erabiltzaileen gaitasun teknika eta fisiko kontrolatzeko unea eta/edo tokia zahaztea.
- EI2.7 Neke-zeinuak deskribatzea.
- A3: Modu eraginkor eta motibagarrian komunikatzea, informazioa lortzeko eta transmititzeko hainbat komunikazio-teknika erabiliz, komunikazio-kondizioak eta solaskideen ezaugarriak bereiziz.
- EI3.1 Kasu praktikoa batean, komunikazio-mota eta erabiltzen diren estrategiak identifikatzea.

EI3.2 Komunikazio-prozesuaren etapak sailkatu eta zehaztea.

EI3.3 Kasu praktiko batean, mezua ulertzea zailtzen duten interferentziak deskribatzea eta identifikatzea.

EI3.4 Mezua testuingurua, helburua eta edukia identifikatuta biltzen dituen kasu praktiko batean, mezua eraginkor transmititzea, eta bitartekoaren hautaketa, teknika egokiak eta komunikazio-estiloa justifikatzea.

EI3.5 Kasu praktiko batean, egoera-testuingurura eta erabiltzaileen ezaugarrietara egokitutako hitzeko edo keinuzko komunikazioko teknikak hautatzea eta erabiltzea.

EI3.6 Igoeraren egoera emozionalera egokitutako entzute-teknikak deskribatzea eta erabiltzea.

EI3.7 Komunikazio asertiboko teknikak deskribatzea eta erabiltzea.

EI3.8 Taldearen ezaugarriak, interesak eta itxaropenak egoki zehazten dituen kasu praktiko batean:

- Mezua hautatzea.
- Informazioa taldearen interesari eta itxaropenei lotzea.
- Informazioaren interesari eustea, informazioa modu progresiboan transmitituz.
- Ibilbidea egin baino lehen bezero-taldeak jakin behar dituen informazioa eta segurtasun-arauak deskribatzea, eta informazioa ibilbidearen ezaugarrietara eta erabiltzaile-motara egokitzea.

EI3.9 Kasu bakoitzaren azterketa kritikoa eta ebaluazioa egitea, eta hobetzeko proposamena modu arrazoituan ezartzea.

A4: Erabiltzaile-taldea haren ezaugarrien, ingurune-kondizioen, ezarritako programaren eta eskuragarri dauden baliabideen arabera gidatzea.

EI4.1 Jarduerari eta gauzatu beharreko ekintza teknikoei buruzko informazioa deskribatzea, eta ibilbidea egin baino lehen bezero-taldeak jakin behar dituen segurtasun-arauen berri ematea, informazioa ibilbidearen ezaugarrietara eta erabiltzaile-motara egokituta.

EI4.2 Jarduera-motaren, erabiliko den zaldiaren eta parte-hartzaile kopuruaren eta haien ezaugarrien arabera, alderdi hauek justifikatzea, segurtasunari, aurrea hartzeari eta eraginkortasunez gidatzeari dagokienez:

- Zaldien prestakuntza.
- Parte-hartzaileak taldearen barnean banatzea.
- Gidak taldeari dagokionez izango duen kokapena.
- Jarduera egiten den bitartean materiala kontrolatzeko maiztasuna.
- Ikuspena txarra eta komunikazioa zaila diren egoeretan kontuan hartu beharreko komunikazio-mota eta -kodea eta portaera-jarraibidea.
- Taldea gidatzeko prozedura eta estrategien ezaugarriak zehaztea.

EI4.3 Zaldiak gidatzeko teknikak deskribatzea eta erakustea, informazioa hautatuta eta antolatuta, eta terminologia espezifiko erabilia, erakustaldia egokia izan dadin eta nabarmendu nahi diren alderdiak indartu ditzan.

EI4.4 Zaldiz egiteko ibilbide baten kasu praktiko batean, non kideek kirol-arloko trebetasun eta abilezia desberdinak dituzten erabiltzaileen rola egiten duten, esku-hartze hauek egitea:

- Erabiltzaileak ordenaz igarotzeko arauak ezartzea.
- Oso trebeak ez diren erabiltzaileei laguntzeko lanak egitea.
- Erabiltzaileei aplikatu beharreko teknikak adieraztea.
- Zailtasuna gainditutakoan taldea non elkartuko den eta erabiltzaileek zer portaera izan behar duten adieraztea.

EI4.5 Ibilbidea zehaztua duen kasu praktiko batean, erabiltzailearen rola egiten duten kideez osatutako taldea zuzentzea, eta ekintza hauek modu justifikatuan egitea:

- Erabiltzaileei harrera egitea, haiekin harremana izatea eta agurtzea.
- Ekipoak eta zaldiak hautatzea, entregatzea, biltzea eta haien egokitzapena gainbegiratzea.
- Segurtasuneko, taldearekiko komunikazioko eta portaerako arauak buruzko informazioa ematea.
- Taldea zuzentzea eta dinamizatzea.
- Espazio naturalak errespetatzea.
- Larrialdi-kasuetan jardutea.
- Jarduera baloratzea eta txostena idaztea.

EI4.6 Ibilbidea definitua duen kasu praktiko batean, ibilbidea bezeroen ezaugarrietara egokitzea, haien interesak, motibazioak, trebetasun-maila eta egoera fisikoa kontuan izanik.

EI4.7 Kasu bakoitzaren azterketa kritikoa eta ebaluazioa egitea, eta hobetzeko proposamena modu arrazoituan ezartzea.

EI4.8 Zaldiz gidatzeko jardueretan onar daitezkeen arrisku-mugak aintzatestea.

A5: Pertsona eta taldea dinamizatzea, gizarte-trebetasunak eta talde-teknikak erabiliz.

EI5.1 Taldeen ezaugarriak deskribatzea.

EI5.2 Taldeko kideek izan ditzaketen ereduak (funtzioak eta ezaugarriak) eta haien ekarpenak positibo bihurtzeko eta talde-integrazioa eta -kohesioa optimizatzeko estrategiak deskribatzea.

EI5.3 Kasu praktiko batean, arazoak/gatazkak konpontzeko estiloak deskribatzea eta aplikatzea, baita konpontzeko prozesuan dauden etapak eta etapa bakoitzean gidariak jokatu behar duen rola ere.

EI5.4 Talde-dinamikako kasu praktiko batean, kasua aztertzea eta esku hartzeko proposamena justifikatzea, egoera simulatu bati talde-dinamikako teknikak aplikatuz.

EI5.5 Gidariak enpatiaz, elkarriketarako joeraz, eta tolerantziaz jokatzearen garrantzia justifikatzea eta baloratzea, eta jarrera horrek bereizgarri dituen portaerak deskribatzea.

EI5.6 Emandako zerbitzuari buruzko kritika jasotzen duenean teknikariak erabili behar dituen irizpideak eta prozedurak eta izan behar duen jarrera deskribatzea.

EI5.7 Kasu praktiko batean, kasu horri irtenbidea emateko ondoen egokitzen diren gizarte-trebetasunak aplikatzea.

EI5.8 Emozio biziko eta krisi-egoeretako zeinu eta jarrerak deskribatzea, eta egoera horiek sustatzeko edo bideratzeko jarduerak-estrategiak proposatzea.

A6: Komunikazio-aparatu sinpleak maneiatzea, ingurune naturalean erabiltzeko.

EI6.1 Ibilbidean telefono-estaldura duten eremuak identifikatzea.

EI6.2 Uhin laburrean eta bestelakoetan emititzeko bandak identifikatzea.

EI6.3 Komunikabide hauek bereiztea, eta bakoitzaren funtzionamendua azaltzea: irrati-telefonoa, telefono mugikorra eta beste batzuk.

EI6.4 Ibilbidea egingo den eremurako komunikazio-sistema aukeratzea, haren ezaugarrien arabera.

EI6.5 Komunikazio-aparatu hauek maneiatzea, eta haien funtzionamendua egiaztatzea: irrati-telefonoa, telefono mugikorra eta beste batzuk.

EI6.6 Komunikabideen mantentze-kondizioak deskribatzea.

EI6.7 Kasu praktiko batean, askotariko komunikabideak billegiratzea, garraiatzeko prestatzea eta haien mantentze-lan prebentiboak egitea.

EI6.8 Kasu praktiko batean:

- Komunikabideak aukeratzea.
- Komunikabide horien eraginkortasuna egiaztatzea.
- Komunikabide horiek garraiatzeko baliabideak prestatzea.

A7: Sorospen- eta erreskate-maniobrak eta erabiltzaile-taldea zuzentzea, kanpotik berehalako laguntza profesionalik jaso ezin denean, ingurune-kondizioen eta eskuragarri dauden baliabideen arabera.

EI7.1 Gidak eraman behar dituen gutxieneko sorospen-materialak deskribatzea, jarduera-motaren, ibilbidea egiteko tokiaren eta erabiltzaile-mota eta -kopuruaren arabera.

EI7.2 Istripu-kasu batean oinarrituta, jarduteko protokoloa deskribatzea.

EI7.3 Larrialdi-plana zer den azaltzea, eta haren aplikazioak deskribatzea.

A8: Ingurune naturalean gaua ematea, kanpaketa- eta bibak-teknikak aplikatuz.

EI8.1 Dendak edo bibak-materialak bete behar dituen ezaugarriak deskribatzea.

EI8.2 Kanpaketa- edo bibak-eremu naturalen ezaugarriak deskribatzea.

EI8.3 Denda muntatzeko urratsak aipatzea.

EI8.4 Gaua igarotzea eskatzen duen ibilbide baten kasu praktiko batean, honako ekintza hauek egitea:

- Gaua igarotzeko tokia hautatzea, eta aukera arrazoitzea.
- Espazioa egokitzea, ingurune naturalean izan beharreko portaeraren mugen barnean.
- Arrisku objektiboko tokiak adieraztea.
- Eremuak identifikatzea: jateko, garbitzeko eta zaldiak egoteko eremuak.
- Dendak egoki banatzea eta orientatzea.
- Ingurune naturalean izan beharreko portaerari buruzko protokoloa ezartzea.

EI8.5 Bibak-materialak erabiliz gaua igarotzea eskatzen duen ibilbidearen kasu praktiko batean:

- Gaua igarotzeko tokia hautatzea, eta aukera arrazoitzea.
- Espazioa egokitzea, ingurune naturalean izan beharreko portaeraren mugen barnean.
- Bibaka egiteko tokia identifikatzea, erraz aurkitzeko.

A9: Informazio meteorologikoa interpretatzea, eguraldiaren eta eguraldiak izan dezakeen bilakaeraren berri izateko.

EI9.1 Atmosferaren portaera orokorra deskribatzea, meteorologia-ikuspegitik.

EI9.2 Kasu praktiko batean, jarduera hauek egitea:

- Mapa meteorologikoak emandako informazioa eta eguraldiak izan dezakeen bilakaera identifikatzea.
- Behe-presioko eremuak non dauden jakitea.
- Haize bortitzeko eremuak identifikatzea.
- Depresioen eta antizikloien biraketa adieraztea.
- Mapan ageri diren fronteak ezagutzea.

EI9.3 Inguruneari behatuz, eguraldi-aldaketa adierazten duten zeinu naturalak deskribatzea eta identifikatzea.

EI9.4 Eguraldi txarraren edo jarduerarako arriskutsuak izan daitezkeen egoeren osaera azaltzea, eta haiek hautemateko edo aurreikusteko zeinuak deskribatzea.

EI9.5 Tenperaturaren inbertsioaren fenomeno definitzea, eta fenomeno hori zer egoera tipikotan gertatzen den eta eragiten dituen fenomeno meteorologikoak azaltzea.

EI9.6 Haizearen eta giro-hezetasunaren ondorioz sentsazio termikoa nola aldatzen den azaltzea.

Edukiak

1. Taldeen funtzionamendua: elkarreragina eta komunikazioa.

- Gorputz- eta kirol-ekintzetan izaten diren pertsona eta taldeekiko harremanetara aplikatutako psikologia eta soziologia:
 - Elementu pertsonalak: nortasuna, motibazioa, jarrerak, emozioa, sentsazioa eta identifikazioa, eta jarrera espezifikoak sortzea.
 - Taldeen ezaugarriak, egitura eta antolaketa:
 - Taldearen psikologia.
 - Norbanakoa eta taldea. Kidego-taldea. Erreferentzia-taldea.
 - Taldeak dinamizatzeko teknikak.
 - Datuak biltzeko teknikak.
 - Lidergo-motak.
 - Arazoak ebazteko prozesuak.
 - Taldean erabakiak hartzeko metodorik ohikoenak; erabakiak hartzeko faseak.
 - Taldeak ingurune naturalean:
 - Ereduzko portaerak eta harremanak.
 - Kohesioa gatazka-egoeretan.
 - Emozio-, arrisku- eta abentura-osagaiak ingurune naturalean egiten diren jardueretan.
 - Jarrera espezifikoak identifikatzea eta sortzea.
 - Talde-gidaritzan kontuan hartu beharreko alderdiak: erabiltzaileen ezaugarriak (interesak, motibazioa, trebetasun-maila, egoera fisikoa, autonomia pertsonalaren mugak), ingurune-kondizioak, programa, segurtasuna, aurrea hartzea, gidatzeko eraginkortasuna, eskuragarri dauden baliabideak, zaldiz gidatzeko teknikak.
 - Komunikazioa, hizkuntza-motak eta komunikazio-elementuak.
 - Komunikazio-elementuak: igorlea, hartzailea, mezua, kanala eta motak (entzute, ikuste eta ukitze bidezkoak).
 - Informazio-transmisioaren etapak.
 - Komunikazioaren interferentziak, oztopoak eta baldintzak.
 - Komunikazio-teknikak: komunikazio-estiloen ereduak.
 - Hizkuntza-motak: ahozkoa, idatzizkoa, keinu bidezkoa, ikono bidezkoa, ikus-entzunezkoa.
 - Mezuen transmisioan, ahozko, idatzizko, ikus-entzunezko hizkuntza eta ikono bidezko hizkuntza erabiltzea.
 - Solaskideen ezaugarriak: asertzio-komunikazioa.
 - Jardueren erabiltzaileekiko komunikazioa.
 - Trebetasun sozialak: entzute aktiboa, entzute-akatsak, enpatia, pentsatzen laguntzea, komunikazioaren helburuak, arauak betetzea, arrisku-egoerez ohartaraztea eta gatazkak konpontzea.

2. Ibilbideetarako komunikazio-aparatuak erabiltzea:

- Komunikazio-ekipoak.
 - Irrati-transmisoreak.
 - Telefono mugikorra.
- Irrati-transmisoreen oinarrizko funtzionamendua.
 - Komunikazio-ekipoen mantentze-lanak: prebentziozkoa, orokorra
 - Muga funtzionalak eta legezkoak.
- Irrati-hizkuntza.
 - Funtzioak eta kodeak.
- Telefono mugikorra.
 - Abantailak eta desabantailak.

3. Bezeroak egiten duen kirol-balorazioaren zehaztapena.

- Kirol-iaiotasun teknikoak.
 - Iaiotasun teknikoa lortzeko etapak: Gauzatze teknikoan egiten diren akatsak. Esfortzua aplikatzean egiten diren akatsak.
- Balorazio-irizpideak.
 - Informazioa biltzeko tresnak: testak, galdera-sortak eta behaketa. Maila-probak egitea.
 - Emaizak interpretatzea.
 - Nekea: sintomak detektatzea.

4. Zaldiz taldeak gidatzea.

- Lidergo-motak. Arriskuen kontrola. Erabakiak hartzea.
- Taldea banatzea, antolatzea eta kontrolatzea, jardueraren eta erabiltzaileen arabera.
 - Hasierako informazioa.
 - Erakustaldi teknikoa.
 - Jarraitu beharreko arauak eta prozedurak transmititzea.
 - Jarduera deskribatzea.
 - Ekipoak egokitzea eta ondo dauden begiratzea: irizpideak eta maiztasuna.
 - Jarduera egin bitarteko jarraibideak.
 - Parte-hartzaileak taldekatzeko eta kokatzeko jarraibideak.

- Jarduera bakoitzaren iraupena kudeatzea.
- Azken laburbilketa eta agurtzea.
- Jarduerak irauten duen bitartean teknikariak egin beharrekoak.
 - Kokapena eta lekualdaketa.
 - Teknikariaren beste jarduera batzuk.
- Kasuen analisia.
- Jardueraren ebaluazioa: unea, baloratu beharreko alderdiak, irizpideak eta hartu beharreko erabakiak.
- Zaldiz gidatzeari lotutako araudiak eta legedia: Hirian zaldiz ibiltzeari buruzkoa. Landan zaldiz ibiltzeari buruzkoa.

5. Sorospen- eta erreskate-maniobrak egitea:

- Sorospen-materiala, alderdi hauen arabera: Jarduera-mota. Ibilbidea egingo den tokia. Erabiltzaile-mota eta -kopurua.
- Istripuetan jarduteko protokoloa.
- Larrialdi-plana eta haren aplikazioak.

6. Eguraldiaren iragarpena, ingurune naturalean gorputz- eta kirol-jardueretarako.

- Kontzeptu orokorrak.
- Airearen tenperatura.
- Presio atmosferikoa: definizioa eta aldaketa.
- Hodeiak: Definizioa eta zatiak. Sorreraren araberako motak eta generoak.
- Zirkulazio atmosferiko orokorra. Zikloiak. Antizikloiak.
- Eguraldiaren analisia eta iragarpena. Eguraldia zeinu naturalen bidez iragartzea.
- Fenomeno atmosferikoei lotutako arriskuak eta neurri prebentiboak. Ekaitza, lainoa edo haizea daudenean jarduteko modua.

7. Ingurune naturalean gaua igarotzea.

- Kanpaketa:
 - Tokia hautatzeko eta egokitzeko irizpideak.
 - Dendak haize nagusien arabera orientatzea.
- Kanpin-dendak:
 - Ezaugarriak eta muntaketa.
 - Dendei indargarriak jartzea klima-egoera txarretan.
- Bibaka:
 - Bibaka egiteko elementuak: bibakeko zorroa, koltxoneta eta sabai bikoitza.
 - Bibaka egiteko tokia hautatzeko eta egokitzeko irizpideak.
 - Premiazko bibaka egiteko halabeharrezko elementuak.
 - Bibak-posizioa markatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1501 Ingurune naturaleko lekualdaketak, egonaldiak eta segurtasuna zaldi-jarduerak egitean.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida.